

KOSTUEN EGITURA

Panpin Askeak irabazi-asmorik gabeko GKEa da, eta bere kostu-egitura gardentasunean, justizia sozialean, jasagarritasunean eta konpromiso humanitarioan oinarritzen da. Helburua ez da soilik baliabide ekonomikoak planifikatzea, baizik eta sortutako funtsak ahalik eta modu eraginkorrean Palestinara bideratzea eta herritarren konfiantza mantentzea. Horregatik, gastuak proiektuaren garapenerako, jarraitasuna bermatzeko eta eragin sozial eta komunitario handiena lortzeko beharrezkoak direneta mugatzen dira.

GKEak ez du egoitza propiorik ezta soldatapeko langilerik ere, eta doako tresna digitalak erabiltzen ditu; ondorioz, hasierako inbertsioa murriztu eta oso fokatua da, panpin solidarioaren diseinura, merkaturatzera eta sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduerei lotutako oinarritzko materiala prestatzera bideratua.

HASIERAKO INBERTSIOAREN KOSTUAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Panpinen diseinua (eredua)	1200 €	Panpin solidarioen lehen diseinua eta lehen prototipoa sortzea	Diseinatzailea edo enpresa laguntzailea
Panpinen lehenengo ekoizpena	2400 €	Proiektuari ekiteko lehen ekoizpen murriztua egitea	Enpresa edo lantegi ekoizlea
Material grafikoaren diseinua	800 €	Kartelak, txartelak eta hasierako ikusizko materiala diseinatzea	Diseinatzaile grafikoa
Lehenengo txartelen inprenta	600 €	Proiektuaren azalpen-txartelen lehen inprimaketa	Inprenta
Hezkuntza-materialaren oinarria	600 €	Hasierako tailerretarako baliabide berrearabilgarriak	Paper-denda eta hezkuntza-hornitzaileak

Hasierako inbertsioaren totala: 5600 €

Taula: Hasierako inbertsio osoa (orientagarria)

Hasierako inbertsioa proiektua martxan jartzeko beharrezkoak diren gastuetara mugatzen da, jarduera hasteko unean soilik egiten direnak barne hartuz. Ez dira kontuan hartzen alokairuak, soldatak, ordainketa-plataformak edo ekipamendu finkoak, GKEak boluntariotzan, ikastetxeekiko lankidetzan eta doako baliabideen erabileran oinarritzen baita. Horrez gain, hasierako ekoizpena modu mugatuan egiten da, gastuak kontrolatzeko eta baliabide eskuragarrietara egokitzeko.

Bestalde, proiektuaren kostuak zuzeneko eta zeharkako kostuetan banatzen dira. Zuzeneko kostuak panpin solidarioaren ekoizpenari eta hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerari lotuta daude, eta ezinbestekoak dira proiektua garatzeko. Zeharkako kostuak, ekintza zehatz bati lotuta egon ez arren, proiektuaren antolaketa eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak dira, eta ahalik eta gehien murrizten dira doako baliabideak eta borondatezko lankidetzaren erabiliz.

KOSTU ZUZENAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Panpinen ekoizpena	6000 €	Ehungintzako materiala eta fabrikazioa	Enpresa edo/eta lantegi ekoizlea
Informazio-txartelak	500 €	Proiektua azaltzeko txartelak	Inprenta
Hezkuntza-materiala	1000 €	Tailer eta berbaldietako materiala	Tokiko eta paper-dendak

Kostu zuzenen totala: 7.500 €

Taula: kostu zuzenak (orientagarria)

ZEHARKAKO KOSTUAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Kartelak inprimatzea	1500 €	Sentsibilizatzeko kartelak	Inprenta
Hedapen-materiala	800 €	Liburuxkak eta ikusizko materiala	inprimaketa-hornitza ileak

Erantzukizun Zibileko aseguria	600 €	Aurrez aurreko jardueretarako estaldura	Aseguru-etxea
--------------------------------	-------	---	---------------

Zeharkako kostuen totala: 2900 €

Taula: zeharkako kostuak (orientagarria)

Denboran zehar aldatzen diren heinean, proiektuaren kostuak kostu finkoetan eta kostu aldakorretan banatzen dira. Kostu finkoak jardueraren bolumena edozein dela ere mantentzen direnak dira; kostu aldakorrak, berriz, ekoiztako panpin kopuruaren eta egindako jardueren arabera dira, hots, ekoizpenari lotuta daude. Hori dela eta, kostu aldakorrak erabilaren arabera dira, hezkuntza-materiala eta hedapen-materiala bezala, besteak beste. Panpin Askeak erakundearen kasuan, kostu finkoak oso txikiak dira, GKEak ez baitu egoitza propiorik ezta soldatapeko langilerik ere ez, eta doako tresna digitalak erabiltzen baititu. Horrekin lotuta, web-orriak eta online dendak ez dute kostu ekonomikorik sortzen, doako plataforma batean garatuta eta borondatez kudeatuta daudelako. Halaber, bidali behar diren eskaera solidarioetan, eskatzaileak bere gain hartzen du garraio-kostua, eta, beraz, GKEarentzat ez da gastua.

KOSTU FINKOAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Erantzukizun Zibileko aseguria	600 €	Jardueretarako urteko estaldura	Aseguru-etxea

Kostu finkoen totala: 600 €

KOSTU ALDAKORRAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Panpinen ekoizpena	6000 €	Eskariaren arabera fabrikazioa	Enpresa edo/eta lantegi ekoizlea
Hezkuntza-materiala	1000 €	Tailerretarako material kontsumigarria	Paper-dendak

Hedapen-materiala	2300 €	Kartelak eta liburuxkak	Inprentak
-------------------	--------	-------------------------	-----------

Kostu aldakorren totala: 9300 €

Kostu sozialek proiektuaren giza eta komunitate-inpaktuekin dute lotura zuzena. Lanaren zati handi bat borondatez egiten den arren, GKEak bere gain hartzen ditu laguntzaileen parte-hartzea, antolaketa eta prestakuntza errazteko beharrezko gastu jakin batzuk. Kostu horiek ez dira ordainsari pertsonaletara bideratzen, baizik eta gizarte-jarduerak modu eraginkorrean eta ordenatuan garatzeko baliabide eta materialak estaltzera.

KOSTU SOZIALAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Boluntarioen prestakuntza	800 €	materiala eta prestakuntza-baliabideak	Hezkuntza-hornitzaileak
Komunitatearen antolaketa	700 €	Oinarritzko logistika eta koordinazioa	Saltokiak eta tokiko zerbitzuak

Kostu sozialen totala: 1500 €

Taula: kostu sozialak (orientagarria)

Azkenik, ingurumen-kostuak ez dira gastu ekonomiko gehigarri gisa aurkezten; proiektuaren funtzionamendu-ereduan bertan txertatzen dira. Panpin Askeak birziklatutako materialak erabiltzearen eta ekoizpen-prozesu arduratsuen alde kokatzen da, eta horrek ingurumen-inpaktua murrizten du, horri buruzko kostuak sortu gabe. Estrategia horri esker, GKEaren jarduerak iraunkortasun eta erantzukizun ekologikoko balioekin lotzeko daitezke.

INGURUMEN-KOSTUAK

KOSTUAK	GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA (€)	ZER DA?	NORI EMATEN ZAIO DIRUA?
Birziklatutako materialak	Sartuta	Berrerabilitako ehunak erabili	Hornitzaile arduradunak
Ekoizpen egokitua	Sartuta	Soberakinak eta hondakinak saihestu	—

Ingurumen-kostu integratuen totala: 0 €

Taula: Ingurumen-kostuak (orientagarria)

GKEak diru-sarrera nahikorik ez badu, gastuak borondatezko ekarpenekin, dohaintzekin eta ikastetxe edo beste erakunde batzuen lankidetzarekin estaltzen dira. Proiektua oinarritzen da behar dena ekoiztean, doako baliabideak erabiltzean eta borondatezko lanean, ordaindu ezin diren gastuak saihestuz. Dohaintzarik edo baliabiderik ez badago, jarduera egokitu edo atzeratzen da. Ondorioz, Panpin Askeak ez ditu kostu handirik izaten; dituen gastuak kausa solidarioari zuzenduak daude, lehentasuna emanez panpinaren ekoizpenari eta hezkuntza-jarduerei, gastu orokorrak mugatuz eta baliabide gehienak Palestinari laguntzera bideratuz.

